



## ❖ URRETXA Mikologiari buruzko hitzaldia gaur

Gaur arratsaldean hitzaldia izango da Urretxak, Urumeako Mikologia Elkarteak antolatuta Biterin, Mikologia Jardunaldien barruan. Hizlari Antton Melendez arituko da eta pagadietako perretxikoei buruzko azalpenak emango ditu. Hitzaldia 20:00etan hasiko da. ||

## ❖ 18/98 SUMARIOAK

# Kaiera koadernoan igandean iritsiko da Hernanira eskubide zibil eta politikoen aldeko ekimenean

Igandean goizeko 10:00etan iritsiko da Egineko egoitzara. Hernanin 9 inputatu daude 18/98 sumarioetan eta horietako bat, Aritz Zubimendi, kartzelan dago.

KAIERA koadernoan datorren igandean iritsiko da Hernanira. 18/98+ plataformak antolatutako ekimen honen helburu nagusia da eskubide zibil eta politikoen defentsa kalera ateratzea. Izan ere, plataformak gogorazi duenez, 18/98 sumarioen barruan 220 pertsonatik gora daude inputatuta eta legez kanpo utzi, itxi edo horren arriskuan daude hainbat erakunde, elkarte eta enpresa. Hernaniri dagokionean 9 dira sumario hauen barruan inputatuta dauden pertsonak eta horietako bat, Aritz Zubimendi, kartzelan dago.

Sumario hauetan biltzen dira honako erakunde hauen kontrako auziak: Egin, Egunkaria, Joxemi Zumalabe, ABK, Bai Euskal Herriari, Haika, Jarrai, Segi, Gestorak eta Bata-suna, besteak beste.

### Herritarren aportazioak

Kaiera koadernoan igandean iritsiko da Hernanira Nafarroako hainbat herri eta Donostia zeharkatu ondoren. Goizeko 10:00etatik aurrera hainbat ekitaldi antolatuta dituzte. Koro Etxeberriaren hitzetan, Hernaniko Kaieraren inguruko egitaraua antolatzen aritu dena, "asmoa da Kaiera koadernoan jendearen aportazioz betetzea, jendeak gauza asko pentsatu eta sentitu baitzituen pertsona horiek inputatu eta erakunde horiek kondenuatu zituztenean. Orain dute aukera hori guztia esateko, norbera hobekien sentitzen den moduan: esaldi bat, bertso bat, marrazki bat edo argazki bat izan daiteke" adierazi du.



Kaiera koadernoan herritarren ekarpenak bildu nahi dituzte. (Argazkia: Guaixe).

Koro Etxeberriak azaldukoaren arabera, Hernanin, beste herrietan bezala, jendea gonbidatu dute alde aurretik Kaieran bere aportazioak egin ditzen: abesbatzak, antzerki munduko jendea, musikariak, sagardogileak, bertsolariak, kazetariak, dantzariak, alkatuek, unibertsitate irakasleak, herriko merkatariek, sindikatuak, argazkilariak eta marrazkilariak, besteak beste.

### Kaiera sinbolo bat

Koro Etxeberriak dio Kaiera sinbolo bat dela "horren atzean bilatzen dena da 18/98 sumarioa artxibatzea eta bertan behera uztea. Eskubide politiko eta zibilen aldeko ekitaldia da, ez daitezen egunkari, irrati edo erakunde gehiago itxi" adierazi du. ||

### Kaieraren inguruko egitaraua, igandean

#### 10:00etan Egineko egoitzan

Kaierari ongietorria egingo zaio Egineko egoitzan. Javier Salutregi, Egineko zuzendariak ekarpena egingo du eta interbentzioa egingo du, beste hainbat langile izandakoekin batean. Kaiera herrira abiatuko da kotxe ilaran.

#### 11:00etan, plazan

Ongietorria egingo zaio Kaierari plazan eta alkateen ekarpenak jasoko dira. Segidan inputatuek hartuko dute Kaiera eta Plaza Berrira eramango dute.

#### 12:00etan Plaza Berrin

Gazteek jasoko dute Kaiera eta aurkezpena eta ekarpenak egingo dituzte. Aritz Zubimendi

gogoratuko da ekitaldian eta segidan Kaiera oholtza gainean jarriko da. Herritarrak iladan jarriko dira ekarpenak egiteko. Herritarrak aportazioak egiten dituzten bitartean herriko talde eta pertsonen emanaldiak izango dira: Ttarla dantza taldea, Ake-larrea, abesbatzak eta graffiti bat osatuko da, besteak beste.

Molotoff irratiak (99.2 FM) saio berezia eskainiko du igandean, goizeko 10:00etatik aurrera.

#### 13:30etan, Plaza Berrin

Amaiera ekitaldia egingo da eta Iñigo Iruinek interbentzioa egingo du. Bukatzeko sagardogile eta elkarteek antolatuta pintxo eta sagardo jana izango da denentzat.

## ❖ JUBILATU ETXEA

### Ozenki eta Doinuzaleren emanaldia gaur

Ozenki abesbatzaren eta Doinuzale Musika eskolako haurren emanaldia izango da gaur jubilatutxan, arratsaldeko 19:30etatik aurrera. Kontzertuaren amaierarako hainbat abesti prestatu dituzte koroko ahotsek musika tresnekin batera kantatzeko. ||

## ❖ EHE

### Ikasturte berrirako plangintzaren aurkezpena gaur

Euskal Herrian Euskarazek datorren ikasturterako plangintza berriaren aurkezpena egingo du gaur Biterin, arratsaldeko 20:00etatik aurrera. ||

## ❖ MENDIRIZ MENDI

### Gipuzkoako Eskolarteko Mendi Lehiaketa igandean

Igandean Billabonan izango den Gipuzkoako Eskolarteko Mendi Lehiaketan parte hartzeko Mendiriz Mendin eman daiteke izena, urriaren 21a baino lehenago, 20:00etatik 21:00etara. Igandean goizeko 08:30etan egin dute zita apezaderoan. Helduek ibilbide bat izango dute eta gaztetxoek beste bat. Hamaiketako norberak eraman beharko du. ||

**PROKOLOR ZENTRUA MARGOAK**  
**Landaribar, s.l.**  
► Industria eta dekoraziorako pinturak  
► Lurrak jartzeko dituztu  
► Pintatutako paperak  
**Kardaberaz 45**  
**Tel.: 943 55 21 31**

**Allianz**  
**ASEGURUAK**  
Agustin Ezponda  
AGENTZIA  
**Tel.: 943 557 326**  
**656 735 109**

**Peña**  
OKINDEGIA • JANARIDENDA  
**Zure eguneroko beharrei erantzuteko, hemen gaude.**  
**Kale Nagusia 19**  
**Tel.: 943 55 23 98**  
**HERNANI**

**tripontzi**  
**taberna**  
**Egunero Menuak**  
**8,50 €**  
**Kardaberaz, 11**  
**tf: 943555724**

☎ TELEFONDAK 1 Taxiak: 943 550093 1 Udaltzaingoa: 943 333288 1 DYA: 943 464622  
1 Autobusak: 943 556662 1 Anbulatorioa: 943 006666 1 Jokalari anonimoak: 943 331103  
1 Alkoholiko anonimoak: 943 331103 + FARMAZIAK 1 Egunez: Etxebeste Elcano 2 - 943 552087 1  
Gauz: Chucla Kardaberaz 48 - 943 551793

**EGURALDIA**  
**GAUR** Gaur okerrera egingo digu eguraldiak. Lainoak ugaritzen joango dira eta arratsaldean euria egin lezake. Tenperaturak behera egingo du eta maximoa 20°C inguruan ibiliko da.  
**BIHAR** Ostiralean haizea izango da protagonista. Zerua lainotuta jarraituko du eta berriz ere arratsaldetik aurrera, euri arriskua izango da. Tenperaturak ez du aldaketarik izango. (euskaimef)

## ❖ BERRIAK


# 600 miloi urteko fosilak ikusteko aukera izango da igandean Plaza Berrin

Berriak, merkatari eta ostalarien elkarteak, antolatu du. Goizeko 10:00etatik eguerdira bitartean izango dira Plazan Berrin.

BERRIAK, merkatari eta ostalarien elkarteak, antolatuta igandean fosilen erakusketa izango da Plaza Berrin. Fosil hauek munduko bazter ezberdinetako txokoetatik datoz, 5 kontinenteetatik. Igandean ikusi ahal izango diren fosil zaharrenek 600 milioi urteko adina dute eta gazteenek, 40 milioi urte. Gehiengoak hala ere Kretazeo garaioak dira, duela 100 miloi urtekoak.

Erakusketako fosilen jabea Olaztiko Benjamin Botanz Apeztegia da eta bere kolezioa osatzen dute, batez ere: intsektu, koral, krustazeo, gasteropodo, oskol eta landareen fosilek.

Igandeko erakusketan batez ere ikusi ahal izango dira: intsektu, koral, krustazeo, gasteropodo, oskol eta landareen fosilak.



Sedimentatutako arroketan aurkitzen dira fosilak.

Erakusketa goizeko 10:00etatik eguerdiko 13:30etara izango da, Plaza Berrin. Euria egiten badu plazako arkupean jarriko dute fosil erakusketa.

### Arrasto edo moldeak

Fosilak garai batean animaliek eta landareek utzitako arrasto edo moldeak dira. Arrasto hauek fosil izena hartzeko

10.000 urteko adina izan beharra dute. Batez ere sedimentatutako arroketan bilatzen dira eta gehienak dagoeneko bizi ez diren espezieenak dira. ||

## ESKOLA KIROLA - ASTEBURUKO EMAITZAK



Pelotari gazteak, pasa den asteko eskola kiroleko saioan.

### SASKIBALOIA

Alebin mutilak	Imaculada-Elizatxo B	15-18	Alebin neskak	Langile C-Elizatxo	18-10
Alebin mutilak	Urumea A-Elizatxo A	9-56	Alebin neskak	Elizatxo A-Urumea D	13-18
Alebin mutilak	Elizatxo C-Urumea B	70-10	Alebin neskak	Langile D-Urumea A	6-18

### PALETA



**Cuencan eta Madrilen oportetan.** Urtero urtero lagun talde batek irteera egiten du Pilarreko zubian. Aurten 9garren urtea izan da eta 40 bat bildu dira, bidalitako argazkian ikusi daitekeen bezala. Cuencan eta Madrilen izan ziren ostegunetik igandera bitartean. ||

### ❖ MOLOTOFF IRRATIA

#### Kaiera egitasmoaren saio berezia gaur gauean

Molotoff irratia (99.2 FM) Kaiera egitasmoari buruzko saio berezia antolatu du gaurko. Saio horretara gonbidatu dituzte Iñigo Elkoro eta Elena Beloki, biak 18/98 sumarioetan inputatuak eta Kaiera egitasmo bultzatzaileak dira. Saioan zehar elkarrizketa zabal bat egingo zaie eta egitasmoa, prozesu judiziala eta Kaiera koadernoari buruz hitz egingo da. Iganderako Hernanin antolatuta dauden ekitaldien errepasoa ere egingo dute. Saioa gaueko 21:00etatik 22:30etara entzun ahal izango da. ||

### ❖ PELOTA

#### Oier Mendizabalek ostiralean, gaueko 20:00etan jokatu du kiroldegian

Oier Mendizabal pelotari hernaniarraren partidua ikusteko aukera izango da ostiralean gaueko 20:00etan ( ez gaueko 22:00etan, atzo Kronikan eta beste hainbat mediotan azaldu bezala). Eskuderoren kontra ariko da, Asegarceko 4 1/2ko txapelketan. Aurretik honako partidua izango da: Esain-Bengoetxea V/Arbizu-Behobide. Sarrerak 10 euro balio du. Jaialdia kirol patronatuak antolatu du, pelota elkarteak lagunduta. ||

**II URTEURRENA**

*Dagoenez igaro dira bi urte gertatu zitzaigun uste gabe utzitako hutsunea ezin bete zenbat ametsa ezin ase zure oroitzua gure barne seme, anai, lagun... beti arte*

*"sendia eta lagunok"*

**Luis Berrondo Ayerza**  
1965 - VII - 21 \* 2003 - X - 20

### ❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Sukaldari bat behar dugu **jatetxe** batean lan egiteko. Deitu: 647 75 16 23

Erleak salgai. Interesatuek deitu: 943 55 15 03

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42).

Arotz profesionalak lan txikiak egingo lituzke. Deitu: 656 78 64 15

**HONDA SCOOPIY 75 motorra dut saltzeko**, egoera onean. 400 euro. Deitu: 605 70 42 65